

199/2003 DEKRETUA, irailaren 2koa; **EAEko Turismo-enpresen Erregistroaren antolamendua eta funtzionamendua arautzeko dekretua.**

Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du turismo-arloan, Autonomia Estatutuaren 10. artikuluko 36. idatz-zatian ezarritakoren arabera.

Turismoa antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 10. artikuluan ezartzen denez, turismo-enpresa eta -establezimenduek Euskal Autonomia Erkidegoko Turismo Enpresen Erregistroan inskribitu behar dute, eta, aukeran, bestelako jardunak ere inskribitu ahal izango dira, baldin eta, eskainitako zerbitzuak, establezimenduak edo bestelakoak turismorako interesgarri izanda, nahikoa garrantzizkotzat eta Euskadiko turismo-eskaintzaren barruan sartzeko modukotzat jotzen badira arauen arabera.

Artikulu horretan bertan adierazten denez, batetik, inskripzioa egitea nahitaezko betekizuna izango da, aipatutako enpresa eta establezimendu horiei emandako administrazio-baimenak eragingarritasun juridikoa izan dezan, eta, bestetik, erregistroaren antolamendua eta funtzionamendua arauz ezarriko dira.

Aipatutako erregistroa arautzen du, bada, honako dekretu honek, Euskal Autonomia Erkidegoan turismoa antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 10. artikuluan ezarritakoa garatzearen.

Horrenbestez, Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoari jarraituz, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak hala proposatuta eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2003ko irailaren 2ko bileran gaia aztertu ondoren,

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA.

XEDAPEN OROKORRAK

**1. artikulua.– Xedea.**

**Dekretu honek Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-enpresen erregistroaren antolamendua eta funtzionamendua arautzen du, Euskal Autonomia Erkidegoan turismoa antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 10. artikuluan ezarritakoa garatzearen.**

**2. artikulua.– Aplikazio-eremua.**

1.– Dekretu honek dakartzan betebeharrak Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako turismo-enpresa eta -establezimendu guztiek errespetatu beharko dituzte, beren helbide soziala beste edonon dagoela ere.

**2.– Erregistroan ofizioz inskribatuko dira turismo-ostatuak, bidaiia-agentziak eta turismoenpresak, martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 37. artikuluan aipatzen direnen osagarriak direnak, bai eta beren turismo-establezimenduak ere.**

**3.–tik 6.–ra ...**

7.– Turismo-enpresen Erregistroan inork inskripzioa eginda ere, horrek ez du esan nahi, hala badagokio, beste edozein esparrutan indarrean dagoen legediak eskatutako baimenak eta lizentziak eskuratu beharra ez duenik.

**3. artikulua.– Izaera juridikoa.**

1.– Erregistroa publikoa da, administrazio-izaerakoa, eta, beraz, hango titularrek eurek ez ezik, han jasotako inskripzioak ikus litzakete norbanakoek zein erakunde publiko edo pribatuak, baldin eta dagozkien datuen berri jakiteko bidezko eta zuzeneko interesa dutela erakusten badute. Gainera, datuak kontsultatu behar diren bakoitzean eskabidea egin behar da aurretiaz, eta ezin izango da erregistro-datu orokorrak eskatu, nahiz eta hautazkoa izan litekeen horrelako eskaerak aintzakotzat hartzea.

2.– Aurreko paragrafoan esandakoa halaxe izanda ere, besterik gabe, gizartean arlo honen berri zabaltzeko eta infomazio orokorra emateko denean, erregistroaz arduratzen den Zuzendaritzako titularrak aukera izango du hor inskribitutako turismo-enpresak, -jardunak eta -establezimenduak katalogo edo gidaliburu batean bildu eta argitaratzeko, zabalkunde-euskarria edozein dela ere.

4. artikulua.– Turismo-enpresa eta -establezimenduen erregistroaren ezaugarriak.

1.– Erregistroa turismo-arloan eskumena duen organoari atxikita dago. Aipatutako organo horrek, bere lurralde-ordezkaritzen bitartez, modu deszentralizatuan kudeatuko du erregistroa.

Erregistroak administrazio-izaera eta publikotasuna izango du, eta Euskal Autonomia Erkidegoan turismo arloko enpresen eta jardueren zentsua izateko balio izango du, hain zuzen ere martxoaren 16ko 6/1994 Legearen xedapenak betez inskriba daitezkeen enpresa eta jarduerena.

Turismo-arloan eskumena duen Saileko lurralde-ordezkaritzetan egin behar da inskripzioa, izena eman nahi duen turismo-enpresa edo -establezimendua zein lurralde historikotan, hor dagoen lurralde-bulegoan.

Turismo-arloan eskumena duen Saileko lurralde-ordezkarriak, bakoitzari dagokion lurralde historikoan, horrexek izango du, beste betekizun batzuen artean, dagokion lurraldeko turismo-enpresen erregistroaz arduratzeko betekizuna, betiere, dekretu honen arabera eta turismo-arloan eskumena duen organoak ezarritako irizpideei jarraituz.

2.– Erregistroaren publikotasuna gauzatuta geratuko da erregistroak ziurtagiriak eta artxibo-dokumentuak ematen dituenean edo liburuak jakinarazten dituenean.

3.– Erregistroa kudeatzeko orduan, zilegi izango da informatika zein ofimatikako teknikak erabiltzea, baita horretako ezar litekeen beste edozein bide erabiltzea ere.

5. artikulua.– Erregistro-inskripzioaren ondorioak.

1.– Inskripzioa ofizioz egingo da, zabalkunde egokia izango duela bermatze aldera eta erantzukizuneko adierazpena betez, eta, behar izanez gero, titularrak Euskal Autonomia Erkidegoko Turismo Enpresen Erregistroan aurkeztutako agiriei jarraikiz.

2.– Erregistroan inskripzioa egiteak berak ez ditu berez baliozko egiten Legearen arabera deusezak diren egintzak.

5 bis artikulua.– Identifikazio-zenbakia jartzeko betebeharra.

Eskaintzen dituzten zerbitzuen publizitateari dagokionez enpresek eta turismo-establezimenduek dituzten gainerako betebeharren osagarri modura, Euskal Autonomia Erkidegoko Turismo arloko Enpresen Erregistroan duten identifikazio-zenbakia jarri beharko dute beren negozioa iragartzeko erabiltzen duten publizitate-mota guztietan, egiten duten faktura edo dokumentuetan, leku-erreserba egiteko ezartzen duten edozein bitarteko, sistema, bide edo formula erabiltzen dutela ere.

## II. KAPITULUA

### ERREGISTROAREN OSAKERA ETA ANTOLAMENDUA

6. artikulua.– Erregistroaren osaera eta edukia.

1.– Turismoko enpresen Erregistro informatizatuan honako datu hauek jasoko dira:

a) Turismo-establezimenduari buruzko identifikazio-datuak (gutxienez, izena, identifikaziozenbakia, herria, helbidea, telefonoa, faxa, helbide elektronikoa eta web-orria).

b) Turismo-enpresaren izendapena edo sozietatearen izena, kudeatzailearena eta legezko ordezkariarena, eta aipatutako pertsona horien sexua.

c) Arloan jardun izanaren eta sailkapenaren erantzukizuneko adierazpena; sailkapena: taldea, klasea, modalitatea eta espezializazioa. Edo, behar izanez gero, adierazi behar da jarduera jakin baterako dedikazioa, data, establezimenduko plaza-kopurua eta ostatu-unitate moten banaketa.

d) Sailkapenean egindako aldaketak.

e) Emandako zerbitzuak.

f) Establezimenduaren itxiera edo jardueraren etena.

7. artikulua.– Erregistroaren egitura.

Turismo-enpresen Erregistroa atal hauetan sailkatuta egongo da:

1. atala.– Hotelak, hotel-apartamentuak eta pentsioak.

2. atala.– Hotelez besteko turismo-ostatuak, alegia, kanpinak, kanpaldirako eremu naturalak, autokarabana eta igarotzako karabanen eremu bereziak, herrietako etxeak, nekazaritza-turismoa, turismoko apartamentuak, turismoko aterpetxeak eta beste modalitate batzuk.

3. atala.– Bidaia-agentziak, baldin eta handizkariak, txikizkariak eta handizkari-txikizkariak badira.

4. atala.– Turismo-enpresa osagarriak, hau da, turismoa antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 7. eta 37. artikuluetan ezarritakoaren arabera halakotzat jotzen direnak.

### III. KAPITULUA.

#### PROZEDURA

8. artikulua.– Prozedura.

Dekretu honetako xedapenak betez inskriba daitezkeen turismoko enpresak eta establezimenduak ofizioz inskribatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Turismo-enpresen Erregistroan, erantzukizuneko adierazpena aurkeztu ondoren eta bertan adierazitako datuak kontuan hartuta.

9. artikulua.– Ziurtagiria.

Inskripzioa eginda dagoelarik, horri buruzko ziurtagiria eskatzeko modua ere izango da. Turismo-arloan eskumena duen Saileko dagokion lurralde-bulegoko buruak sinatu behar du agiri hori, eta, era horretara, dokumentu fede-emaile horren bitartez, ziurtatuta geratuko da inskripzioan jasota dagoena.

10. artikulua.– Inskripzioko datuak aldatzea.

1.– Inskripzioan jasotako datuetan aldaketarik edo moldaketarik gertatuz gero, nahitaez horren berri jakinarazi beharko zaio dagokion lurralde-ordezkaritzari, eta beharrezko diren agiri guztiak aurkeztu beharko dira; horretarako, hilabete bateko epea egongo da, aldaketa (ez oso nabarmena)

gertatu denetik hasita. Aldaketak oso nabarmenak izanez gero, aldatutako elementuetan trafikoturistikoa berriro hasi aurretik jakinarazi beharko da horien berri.

2.– Era berean, turismo-enpresa eta -establezimenduen erregistroa eguneratzeko asmotan, Turismoa antolatzeko Zuzendaritzak interesatuei bidaltzen dizkien inprimakiak ere bete beharko dituzte turismo-enpresa eta establezimendu horiek.

#### 11. artikulua.– Deuseztapenak.

Egindako inskripzioak bertan behera utzi edo horiei baja emateko, dagokion jarduera eten beharko da, establezimendua ixteko zehapen osagarria jaso edo jarduera behin betiko gelditzea erabakitzen duen ebazpen arrazoitua eman. Ebazpen horretan, martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 8.3 artikuluan ezarritako kasuren bat izan behar da tartean. Bertan behera uzte edo baja emate horiek zergatik eta noiz gertatu ziren adierazita egingo dira.

### IV. KAPITULUA

#### ZEHAPENAK

#### 12. artikulua.– Erantzukizuna, arau-hausteak direla-eta.

Dekretu honetan ezarritako xedapenetatik edozein betetzen ez duneak administrazio-erantzukizuna izango du, Turismoa antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 65. artikuluko d) idatz-zatian ezarritako xedapenen arabera.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-enpresen erregistroaren antolamendua eta funtzionamendua arautzeko irailaren 2ko 199/2003 Dekretuan, "titularra" eta "lurralde-bulegoko burua" direlakoei "titular" eta "lurralde-ordezkar" deituko zaie.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Dekretu honetan ezarritako xedapenen aurkakoak diren guztiak indarrrik gabe geratuko dira aurrerantzean.

#### AZKEN XEDAPENAK

Lehena.– Turismo-arloan eskumena duen Saileko titularrari baimena ematen zaio honako dekretu hau garatzeko eta betearazteko eman behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena.– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Donostian, 2003ko irailaren 2an.

Lehendakaria,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua.  
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.